



2016ko EKAINaren 9an, ARRIAGAN,
FRANZ KAFKAREN **METAMORFOSIA**
IRAKURKETA JARRAIKIA ETA OZENA

55. PASARTEA

Antza, aitari Gregor uxatzea baino lehenagokoa begitandu zitzaion maizterrak baretzea, Gregorrekin batere asaldatuta ez zeuden arren, itxuraz biolinarekin baino entretenituago. Aita haiengana oldartu eta besoak zabalduta saiatu zen haiek beren gelara eramaten eta, aldi berean, bere gorputzaz Gregor bistatik kentzen. Apur bat haserretu ziren, auskalo zergatik, aitaren jokabideagatik ala orain arte ez zekitelako Gregor bezalako bizilagun bat izan zutenik. Aitari azalpenak eskatu, haiek ere besoak goratu, beren bizarrei urduri tira eta astiro bueltatu ziren beren gelarantz.

Bitartean, arrebak gainditu egin zuen saioa bat-batean eten izanaren zirrara. Eskuak zintzilik zituela biolinari eta arkuari eusten egon ondoren, eta jotzen jarraituko balu bezala partiturari begira egon ondoren, ez non eta ez han suspertu, arnasari buelta eman ezinik eserita zegoen amaren magalean musika-tresna utzi eta ondoko gelan sartu zen korrika, aita behartuta maizterrak haraxe hurbiltzen ari zirela. Arrebaren esku trebatuei esker, oheetako tapakiak eta burkoak hegan joan eta txukun jarri ziren.